

» TELEGRAMA

Juaristi, Makuso, Otxoteko & Gorrotxategi idazle laukoteak *Muga* liburuaren aurkezpena eta errezitaldia egingen dute Iruñeko **Katakrak kulturenean**, abenduaren 15ean, ostegunez, 19:00etan **STOP Pier Paul Berzaitz & Baiona-Kostaldeko Orkestrak** emanaldi berezia eskainiko dute Lapurdiko Bokaleko **Paul Vaillant-Couturier** kultura-gunean, abenduaren 17an, larunbatez, 20:30etan **STOP Gasteizko Udal Antzoki Sarearen Eguberrietako** programazioak hamasei ikuskizun eskainiko ditu abenduaren 1etik urtarriaren 4ra arte. **Principal antzokian** besteak beste, **La Oreja de Van Gogh, Faemino y Cansado, Fermin Muguruza** eta **Albert Pla** izango dira **STOP**

» DISKOA

Doinu indartsua, salaketa eta aldarria



Boomerang

FRENETIK

Autoekoizpena, 2016



Joxi Ubeda

Aguraingo taldeak aurrerapausoa egin du bere bigarren disko honekin. Taldea egonkortu egin du, eta *Boomerang* lanarekin taldeak bere esentzia aurkitu duela esan daiteke, bere mamian sakondu duela.

Taldeak punk-rock eta rock doinuen bidez kritika eta salaketa egiten jarraitzen du, ustelkeriaren, bidegabekeriaren eta faltsukeriaren inguruan, ahoan bilorik izan gabe, zuzen edo ironiarekin. Baina bere doinua findu egin du, melodiak gehiago landu ditu, eta zer egin nahi duen eta nola egin nahi duen argi daukala nabarmena da.

Doinua indartsua da, erritmoak biziak dira, eta kantuek energia handia, inkonformismoa eta haserrea transmititzen

dute. Borroka egiteko beharra, askatasuna eta nor den bezalako izatea ere aldarrikatzen dute: "Izan zure bizitzaren jabe beldurrik eduki gabe, sentitu eta bizi aske". "Aldaketa ez digute oparitu, herria eraiki dezagun, zurekin aldatu nahi dut, kantu berri bat egin nahi dut eta bide berri bat sortu, ez beldurtu dena baitago gure esku".

Unai Olalde (gitarra eta ahotsa), Fonta (ahotsa), Xabi Seko (baxua eta ahotsa) eta Eneko Larrañaga (bateria) dira Frenetik taldeko kideak, eta grabazioa Altsasuko Itxura estudioan egin dute, Fontaren beraren eta Fran Perezen gidaritzapean. Masterizazioa Jonan Ordorikak egin du Mamia estudioan, eta diseinu lanaz Iker Baxerri arduratu da.

Kantuak janzterakoan hainbat musikariren laguntza izan dute. Pello Reparaz (Vendetta), Olatz Salvador (Skakeitan), eta Pablo Martinez (Desakato) aritu baitira Frenetik taldekoekin grabazio saioetan. Halaber, Iker Pastorren laguntza ere izan dute hitzak idazteko garaian.

Eratu, Kaotiko, Kaos Etiliko, Hesian, Txapelpunk eta No-relax taldeetan aritutakoak dira taldekideak, eta Frenetik taldearekin denbora gutxian, bi urtean, jendaurreko emanaldi ugari egin dituzte eta bi disko plazaratu dituzte: *Guillotina* 2015eko otsailean eta *Boomerang* aurtengo azaroan. Hemendik aurrera jendaurreko emanaldiak egiten hasiko dira disko berriko kantuekin. ■

Frenetik taldea jendaurreko emanaldi batean.

PATRY GONZALEZ

